

ALDAKUNTZA EBALUZIO-TXOSTENA

TITULUAREN IZENDAPENA	FILOSOFIA GRADUA
UNIBERTSITATE-ESKATZAILEA	UNIVERSIDAD DEL PAÍS VASCO / EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEA

Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitateak Tituluen Jarraipenaren prozesuaren baitan Unibasq-era aurretik egiaztatutako memorian jasotakoari dagokionez aldakuntzen ebaluazio-eskaera bidali du. Eskaera hori 1393/2007 Errege Dekretuaren, eta honen ondorengo aldaketen, 28. Artikuluaren babesean aurkezten da, zeinaren bitartez egiaztatutako titulu ofizialak eskuratzeko ikasketa-planen aldakuntza-prozedura ezartzen den. Halaber, Unibertsitatea "Unibertsitateko Tituluen Aldaketa Eskaerarako Gidaliburua (gradua eta masterra)" jasotakoari heltzen dio, non zehazten diren zeintzuk prozesuen bitartez aurkeztu beharko dituzte unibertsitateek bere graduko edo masterreko tituluetan sartzten dituzten aldakuntzen jakinarazpena edota ebaluazioa.

Txosten honetan Unibertsitateak aurkeztu duen Jarraipen-Txostenean adierazitako alderdien ebaluazioa bakarrik jasotzen da, 2.1 eta 4.1 ataletan jakinarazitakoak. Ez dira ebaluatutzat hartuko Unibertsitateak memorian aldatutako alderdiak eta atal horietan jaso ez direnak.

Instituzioak titulazioaren ikasleriari modu egokian aldaketa hauen berri eman beharko dio, horretarako dituen baliabide guztiak erabiliz.

Ebaluazioa Arteak eta Giza-Zientzietako Batzordeak egin du, profesionalekin, ikasleekin eta esparru akademikoaren nazioarteko zein nazio-mailako pertsona adituekin osatua dagoena. Batzordearen kideak agentziaren web orrian jasotzen den prozedurari jarraituz hautatu eta izendatu dira.

Aldakuntza-eskaera aztertu ondoren Ebaluazio-Batzordeak **ALDEKO** ebaluzio-txostena igorri du, honako hau kontuan izanik:

Unibertsitateak jakinarazitako aldakuntza:

Hiru ikasgairen hizkuntz aldaketa (gradutik eleaniztasun planera).

Irakasle eta Ikertzaileen Plantillaren Antolatzeko Zuzendariaren eskaera onartuz, Filosofiako graduan ingelesez eskaintzen diren hiru ikasgai (25147 Logic I; 25153 Philosophie of Language I; 25157 Philosophie of Science I) gradutik Eleaniztasun Planera mugitzeko eskaera egiten da.

Gradu Batzordeak proposamena onartu du martxoaren 1ean eta indarrean jarriko da 2018/19 ikasturtean

Batzordearen Balorazioa:

Batzordeak unibertsitateak aurkeztutako aldakuntza egokitzat jotzen du, ingelesez ematen diren hiru irakasgai eleaniztasun planera mugitzeko aldaketak ez dielako Titulu Ofizialaren izaerari eta helburuei eragiten.

Txosten honetan ezarritakoaren aurkako alegazioak aurkeztu ahalko dira, 10 egun naturaleko epean. Epe hori igarotakoan, unibertsitateak alegazioak aurkezteari uko egin diola ondorioztatuko da eta txosten hau behin betiko txostena bihurtuko da.

Vitoria-Gasteizen, 2019ko urriaren 8an

Stua.: Eva Ferreira García
Unibasq-eko Zuzendaria